

ATZERRIRATUAK

AITA ONAINDIA

Bakoitzak dogu, Jaungoikoak emonda, geure lur zatia. Euskaldunok be ementxe daukagu mendil ta itxaso artean, oso zoragarria, geure bizi-lekua. Noiztik? Ez dakigu; baiña ha-leizteko orain ogi edo ogeta-mar milla urtetik; len Asia'tik edo Aprika'tik, Europa'n zear alderrai ibillik izan arren, orain ementxe bizi gara. Ementxe ditugu geure oitura, etxe, lantegi, soltu, abere, itxaso ta gailherakoak. Ementxe daukagu bizi izateko bear dogun guztia; ementxe bakoitzak beste gauza guztien gailhetik izan bear dauan sorteria.

Baiña gizasemeok, ipo txar samarrekook izanik, ezkara Jaunak emon eukunaz errez asetzen: gelago nai dogu, ihorena be bai, Eta askotan, ihorengaz jabetu bearrez, sekulako kalteak egin oi ditugu gizaritean. Gizaldiak zear ostira gudu, liskar ta burruka gitxi izan! Ihorena arrapata nziak, zenbatetan mailkoz busti dituan gira-begiak! Bidezkoa al da au? Dana dala, mundua mundu dan bitartean gizona orrela izan da, ta, oinezko, orrela izango be; au da, gizonak jaurti egin ditu, mal-trukeriz edo indarrez, izatez berreko daben aberririk bere kidekuak, onela erriakin jabetuaz.

Erritarrak eurak beste askotan euren sorlekuak itxi ditue, diruak eta ikusmitiak eraginda nurbait, kezkatu ta adur-zale obeagoaren bila erbestera bidea arturik, Zenbat olako munduan! Ameriketako zoki askotan lurbera zabaleko errialde guztietakoak bizi dira nastean. Eta, orren urruti joan barik, geure artean be ez ete ditugu gaur munduko enda guztietakoak? Gira-en-

da ezta ez leku izentatu batean irautekoa, iperloka porrokatu baiño.

Euskaldunok ez gara onetan atzenengo, Euskaldunok jaiotzez zortzi milloi edo gara munda zabalean, eta gaur euskal probintziotan bizi gzeanok ezkara milloi bira elduko, Beste guztiak erbestean dabilta: bizi-tza obe bila joanak.

Lurrez ta errialdez ablatze onek, alan be, gizonak egiñak dira; bizi izateko, dudarik bage, norbere lurra da oberena, Lurrek bere mendil, zugatz, itxaso, oitura ta erlejiñoz, berariko giroa zearri oi dauza gizonari: giro orretan auzaitua bizi izango da egoki ta erosoan. Ortik kanpora zerbait paltako yako; ta zerbait ori gorputz giroa izan oi da askotan, eta beti arima giroa. Eta, bere tokitik kanpo dagoan traman-kulua lez, erbestera be, gorputz eta arima, bere izateko ardatzetik urtena bizi da. Au, ostera —nok ez daki?— guztiz penagarri yako gizonari.

Kezka ta barne-min onek eraginda, askatasuna naiz bizi galdu bear izanda be, zenbat erriratu diran barrira be, erbestean ezin egonik. Gogora daigun Iparragirre: bere azurrak etzituan ezetara be Ameriketara itxi nai; ara ta ona ibilli ondoren, luzaro Argentina'n eta Uruguai'n bizi ta zortzi seme-alaben alta izan arren, dana bertanbera laga ta Euskalerrira itzuli zan, zarizaroa eldu yakonean; eta ementxe il zan, Gabiri'ko Zozabarro base-rrian, 1.881'ko jorruillaren 6'an, Gogora baita Zizurkil'ko P. M. Otaño'ren bertso gartsuak, Euskalerrira begira egiñak, edo Emeteri Arrese'renak.

Emen daukat neure eskutiz pilloan, Kanada'ko Toronto'tik Ormaetxe'tar Kepa'k, bere danak lez, errimiñez gailhezka egiña; Aramalo'ko semea bera, azken-gerratean ara aldatua, gau ta egun Euskalerrira begira bizi izana. Oraintxe lau bat illabete il zan gixajoa, bere sorleku-tik urrun, Idazki guztiak erri-kutsuz beteak egin oi eustazan: gorputzez an egoan arren, gogoz emen bizi zan. Zenbat olako daukaguzan or-emen! Zenbat biotz zauritu! Malkoz begiak, odolez biotzak! Mundu onetan noizetik noizera izaten dira trajedi aundiak; oneina ezta txikiena, naiz-ta ixillagokoa.

Erbestetzearen joana garratza da noski, baiña ezta ori bakarrik; ori ezta zori gaiztoaren asiera besterik. An urruti asten da, gau etenbakoa-ren miesapean, egiako zori txararen odol-ixurtze ixilla; urteierako negar-malkoak une batekoak dira, gerokoak barriz noraezekoak eta etenik ez dabenak. Amaika bada-kusguz, erri barik, Ameriketako uri nagusietako bazterrik itsusienetan sarri, negar jariokai Gizon erne ta zangarrak bear bada lenengo bildur-izua garaitu zituenak, euren sorterrian ukatzen yakena billatzearen, erriz aldatze batek beregan ditun zortor ta eragozpenak gizonki azpiratu zituenak, an, urruti artan, itxaropenez besterik, kezkatu ta urduri, errimiñez ilten dagoz. Gai-soak!

Egia esateko, bestelako giroak apurka aantz-erazo ta aldatu oi ditu antxiñako oroipenak eta gomutak, baita gorputzak eurak be. Erbestera aldatu diranen artean errez aurkitu daikaguz pamil bi, bata urriñekoa, egun gomutagarri baten sorlekuan itxia, ta bestea, itxaso edo erimugak igaro ondoren egiña. Oneitatik asko, zoritxarrez, berezko aberrira gelago bihurtuko ez diranak doguz. Onela itz-egiten dabe: «Gure azabak eta gu aurretiko-en sorterril min gara, baiña gure bizileku orain lurralde onek dira, emen ditugu geure garatz eta negoziuak». Gizonari beti jazo yakona: nun ezkurra antxe bizi, naiz-ta barnean zimikoak ozka egin.

Euskaldunarentzat beti be arakarpin ikaragarria izan dabe Amerikak eta Australiak; lurralde areltan milloika gutar dira aurretiko gizaletan ara aldatuak. Gaur be

naikoa dira gure artetik lurrez aldatzen diranak, baiña ez lenago besterik. Bizkai ta Gipuzkoa'tik gitxi baiño ez doaz: Naparroa'tik, Lapardi'tik eta Zuberoa'tik gelago, probintzi erreitan beste biotan niza industri ez dabelako. Ez, zorionez, gaur estau beñola beste erakarpen eta illura urrutiko bazter orreik.

Joan ziranak, alan be, guk ezin ditugu aitzurik itxi; geuretarrik doguz, geure odola daroe areik be, ta odolak odolari del, mendiak mendiarri antzera. Zintzo ta egi mintzatzera ezker, orreitariko asko itzuliko litzakez euren sorleku-ra. Baiña estabe ortaroko kemirik, estabe adorerik.

Egiaz mingotsa atzerriratuen zorria. Mahats-aien bi antzera euren besoak jaso oi ditue sorterril-joranez. An naiz emen egiako argiak argi begioz; benetako pozak igurtzi begiz, noizka baiño erpada be, sorleku miñez dagoan biotz zurbildu orreik. Eta askok, txit askok, pozez gailhezka kanta dagiela, beñola Elizanburu'k lez, euren jaiotzera biurtzean:

«Urrundik ikusten dut, ikusten
[mendia:
beraren gibelean baitut nik
[erriak.
Jadanik dut aditzen, zorion
[aundia],
ezkilla maitearen asperen ezitia».

EBANJELIOA

Ebanjelio Santuaren zatia
San Marko'ren Liburutik.
(8. 1-9).

Aldi artan:

Jendetza aundia izan, eta
zer-janik etzegolako,
Jesus'ek bere Ikasleel del-
eginda, onela esan zien:

Erruki del jende au,
lru egun oetan Nerekin
balt-daude,
eta ez daukate zer-janik;
eta etxera baraurik blal-
tzen badituz,
bidean akiturik geldituko
dira;
batzuek urrutitik etorri di-
ra-ta.

Ikasleak onela zioten:
—Basamortu ontan
nundik sortu, olek asetze-
ko aña ogi?

Eta Berak galde:
—Zenbat ogi dituzute?
Eta alek erantzun:
—Zazpi.

Lurrean esertzeko agnizien
die.

Eta zazpi ogiak artu,
eta eskerrak emanaz
puskatu,
Eta Bere Ikasleal ematen
zizkien, banatu ziztaten;
eta banatu zizkloten jen-
deari.
Ba'situzten arraitxo ba-
tzuek ere;
eta bedelkatuaz,
alek ere banatu ziztateal
agindu zien.

Eta jan zuten, eta ase ziran;
eta jan-gabe gelditutako
ondarretatik
zazpi otzara bete zituzten.
Eta lau bat milla ziran.
Eta bidaldu egin zituan.

ERAMAN-EKARRI'rako
AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL ETA ERDAL
ERRI GUZTIRAKO
Iparagirre, 8 - DONOSTIA

gunera
RLOS SANTAMARIA'K

K. 6.
Gauza bat sekula gertatu ez dana beñere
dala esatea uski ez da. Ba zan ere Tan-
riketan, arri izugarri bat, puntu txiki baten
trentte irauten zana amaika sekuletatik.
arria erori zan eta Taudil'eko arkaitzaren
uletarako bukatu zan. Oitura lege bihurtu
batzutan egi amditzat artzen ditugunak,
besterik ez dira izaten. Oitura bat aldatu
lurrera erori zaigula dirudi. Alabaña, Erioa
ura guziak porruak landatzera joan bear.

K. 7.
(San Permin naparra). Gaitzaren proble-
ko problema da. Erren bat Iruñara joan
ermitetara, bere lagun batekin. Asi zan bez-
zezenien aurretik korri naiean, bañan, ja-
eta gelditu bear izan zuen, zuzen ta muti-
en ikusirik. Oso trivte ta goibel gelditu zan,
ederki bere bi zankoekin saltoka ta dan-
tzala ikustean, bera berriz geldirik egon
ik Gerokoan zezentxo batek bere laguna
zanku ondatu ta erdi illa utzi zuen. Noi-
rrera izateak ere bere abantuillak ba ditu.

ONENAK

TXARTEL ONEN

ORDEZ

GITXITZE BAT

EGINGO YATZUE

DENDA ONETAN

(Deskuentoa)